



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KIROL LANBIDEEI HELDU ETA HORIETAN JARDUTEARI BURUZKO LEGE AURREPROIEKTUARI EGINDAKO TXOSTENA

Aurkibidea:

I. Aurrekariak eta LEAren eskuduntza.....	¡Error! Marcador no definido.
II. Lehiaren murrizketen justifikazioa eta legezko mugapenak zerbitzuak emateari dagokionez	2
III. Proposatutako araudiaren azterketa lehiaren ikuspegitik.	5
1. Arau-paradigmaren aldaketa	5
2. Proposatutako arauak sorrarazten dituen hesien azterketa.	7
A. Titulazioak eskatzea eta jardueraren erreserba egitea.	8
a. “Begirale” edo “entrenatzailearen” jarduerak.....	8
b. “Zuzendariaren” jarduerak	10
c. Gorputz hezkuntzako irakaslea	11
d. Proposamenak sortzen dituen lanbideen gaineko alderdi erkideak.....	11
e. Balorazioa.....	12
B. Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol-Profesionalen Erregistroa eta elkargoan derrigorrez kide izateko aipamena.	12
C. Izendapenen erreserba.	1¡Error! Marcador no definido.
D. Arau-haustea eta zehapenak sortzea.	15
a. Zehapenak sortzea arau-hauste formalen zioz.	15
b. Jardueretan aritzea justifikaziorik gabe mugatzen duten administrazio- eta diziplina-urratzeak sortzea.	16
E. Murrizketak zerbitzuen publizitateari.....	16
F. Lehiari eragin ahal dioten beste alderdi batzuk.....	17
IV. ONDORIOAK.	18



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga and., batzordeburua

Natividad Goñi Urriza and., batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jn., batzordekidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jn.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Osoko Bilkurak, 2015eko martxoaren 3ko saioan, goian aipaturiko kideak bilduta zeudela, honako irizpena eman du, Euskal Autonomia Erkidegoan, kirolari lotutako lanbideei heldu eta horietan jarduteko Lege Aurreproiektuaren inguruan.

I. Aurrekariak eta LEAren eskuduntza.

1. 2015eko urtarrilaren 23an, Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) honetara heldu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, kirolari lotutako lanbideei heldu eta horietan jarduteko Lege Aurreproiektua (aurrerantzean, Aurreproiektua), entzunaldiak irauten duen artean, egokitzat jotzen diren alegazio eta iradokizunak egiteko xedez.

2. Honako txosten hau egin da Legeak erakunde honi egilesten dion eskumenarekin bat etorriz, lehiaren sustapena dela eta¹.

Aipatutako eginkizunaren xede nagusia da euskal merkatuen lehia eraginkorra sustatzea, zehapenez kanpoko egintzen bidez; horietan, nabarmentzekoa da herri-administrazioekiko harremanak lantzea, arau juridikoen proposamen-egile den aldetik.

II. Lehiaren murrizketen justifikazioa eta legezko mugapenak zerbitzuak emateari dagokionez.

3. Askotan, lanbide-zerbitzuak lehiaren murrizketen eraginpekoak dira eta, hortaz, lehiaren agintaritzak askotariko erantzunak eman behar izaten ditu². Arestian esandako murrizketak, arruntean, lanbideari heltzeko hesiak dira edo lanbidean jarduteko baldintza zehatzak.

¹ Ikusi Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3 eta 10.n artikulua. EHAA, 29 zk., 2012ko otsailaren 9koa.



Lanbide jakin bati heltzeko murrizketen ondorioz, lanbide-zerbitzuen eskaintza gutxitu egiten da merkatuan eta, era berean, merkatu horretan jarduten duten eragile ekonomikoen arteko lehia ere txikitzen da. Lanbide jakin batean jarduteko murrizketek, ordea, asaldurak sorrarazten dituzte merkatuetan eta, horien eraginez, pizgarri gutxi sortzen dira zerbitzuak hobetzeko eta prezioak merkatuzeko. Ildo horretan, lehiatzeko gaitasun eraginkorra murrizten diete profesionaleri, ez dira elkarrengandik bereizten eta koordinazio horizontala bultzatu daiteke. Zerbitzuen erabiltzaileak babesteko neurri ugari daude, azkenen eskubideak bermatzeko³.

Hasteko eta bat, administrazioak ahalbidetu behar du eskaintza bereiziak egon daitezen, kalitate, prezio eta dena delako zerbitzuaren gainerako baldintzei dagokienez, erabiltzaileak askatasun osoz hautatzea izan dezan haien artean; beraz, merkatuko akatsak zuzendu edo babestu beharreko interes publikoari eusteko asmoz bideratzen diren esku-hartze murriztaile oro interes orokorraren aurkakoa da.

² Ikusi, adibide gisa, honako hau: MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. IPN DP/003/14 Agindu Proiektua, gidaridun ibilgailuak alokatzeari buruzko FOM/36/2008 AGindua aldarazten duena. Madril, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, MLBN. http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_sobre_normativa/2014/IPN%20DP_003_14%20Proyecto%20de%20Orden%20por%20la%20que%20se%20modifica%20la%20Orden%20FOM_36_2008%20de%20Arrendamiento%20de%20Veh%C3%ADculo%20con%20Conductor%20.pdf; MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA.

IPN/DP/002/14 Errege Dekretuaren Proiektua, lurreko garraioen antolamenduari buruzko Legearen Araudia aldarazten duena. Madril, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, MLBN, http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_sobre_normativa/2014/IPN_DP_002_14%20PROYECTO%20DE%20REAL%20DECRETO%20QUE%20MODIFICA%20EL%20REGLAMENTO%20DE%20LA%20LEY%20DE%20ORDENACI%C3%93N%20DE%20LOS%20TRANSPORTES%20TERRESTRES%20.pdf; LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. Bilboko Udalak egindako kontsultari erantzuteko txostena, Bilboko taxiari buruzko udal ordenantzaren 33.1 artikulua aldatzearen gainekoa, in: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/INFORME%20TAXI%20BILBAO%20DEFINITIVO_%20web.pdf (txosten horretan aipatutako orrialde guztien azken kontsultaren data 2015eko otsailaren 25a da).

³ Ikusi, izaera orokorrez, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2011/83 EB Zuzentaraua, 2011ko urriaren 25ekoa, kontsumitzaileen eskubideei buruzkoa. Zuzentzarau horrek Europako Batzordearen 93/13/EEE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 1999/44/EB Zuzentaraua aldarazi zituen eta Europako Batzordearen 85/577/EEE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 97/7/EB Zuzentaraua, DOUE L 304/64, 2011ko azaroaren 22koa indargabetu zituen; 3/2014 Legea, martxoaren 27koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testuategina eta beste lege osagarri batzuk aldarazten dituena, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa, EAO, 76 zk., 2014ko martxoaren 28koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko **6/2003 Legea, abenduaren 22ko, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuarena, EHAA, 254 zk., 2003ko abenduaren 30ekoa.**



4. Merkatuetako lehiaren esparruan, zerbitzuari heltzeko hesiak honela definitzen dira: merkatu jakin batean, operadore berrien sarbidea zailtzen edo galarazten duten oztopo eta kostu guztiak⁴.

Sartzeko hesiek ondorio kaltegarriak sorrarazten dizkie arloko ekonomiari; izan ere, hesiek operadore berrien sarrera zailtzen dute eta, beraz, operadore berriek ezin izango diote lehiari eutsi, ez eta, zerbitzuen eskaintzari dagokionez, erabiltzaileentzako baldintza hobek sortu ere. Sartzeko hesirik ez bada merkatuetan, enpleguaren sorrera eta berrikuntza sustatzen dira eta, gainera, lehia hobetzen da⁵.

Nolanahi ere, inguruabar jakin batzuetan, interes orokorreko arrazoiek bidezkotu dezakete merkatu jakin batera sartzeko modua mugatu edo galarazteko hesiak ezartzea, baina lehiaren ikuspegitik, sartzeko hesiak onargarriak izango badira, eskakizun batzuk bete beharko dituzte⁶:

- **Beharrianak** esan nahi du hesiek bidezkotuta egon behar dutela honako arrazoiengatik: ordena publikoa, segurtasun publikoa, ingurumenaren zaintza, o bestela, natur baliabideen eskasia edo ageriko traba teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatu behar denean.
- **Proporzionaltasunak** esan nahi du mugapenak tresnarik egokiena izan behar duela lortu nahi den helburua lortuko dela bermatzeko, emaitza berdina lortzeko modua ahalbidetzen duten beste neurri batzuk (erabakitzen direnak baino muga txikiago ezartzen dutenak) ez daudelako.
- **Diskriminazio** edo **bereizketarik eza**, herritartasun, establezimenduaren kokapena edo sozietatearen egoitzaren arabera;

Beraz, zeinahi legeak merkatura sartzeko neurri mugatzailerik ezartzen duenean, arrazoitu beharko du legeak arestian azaldutako eskakizunak betetzen dituela: beharrianak, proporzionaltasuna eta bereizketarik eza.

⁴ LEHIAREN DEFENTTSARAKO AUZITEGIA C89/05 Kontzentrazio Ekonomikoaren Espedientearen Txostena, Igalatorio Medikoak, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/expedientes.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=&p=0&numero=C89/05&ambitos=Concentraciones&estado=0§or=0&av=1>.

⁵ Merkatura sartzeko hesiak legezkoak, teknikoak eta ekonomikoak izan daitezke edo, bestela, merkaturan lehendik dauden enpresen egoera finkoaren ondorioz sorrarazitakoak. Ikusi kontzentrazio horizontalen ebaluazioari buruzko Batzordearen Zuzentarauen 71. atala, enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatzeko Batzordearen Araudiari jarraiki (2004/C 31/03), DOUE C 31/5, 2004ko otsailaren 5ekoa. <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2004:031:0005:0018:es:PDF>.

⁶ Zerbitzu-jaruerei era askean heltzeko eta horietan jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua, EAO, 283 zk, 2009ko azaroaren 24koa. Merkatuaren batasunaren bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean jasotako idazkerari jarraiki, EAO, 295 zk, 2013ko abenduaren 10ekoa.



5. Omnibus izeneko legeak hainbat aldaketa txertatu zituen araudian, lanbide-zerbitzuak liberalizatzeko xedez⁷. Besteak beste, 39bis artikulua txertatu zuen 30/1992 Legean⁸. Arau horren oinarritzko izaera dela eta, herri-administrazio guzti-guztiak behartuta daude, ezen lehia mugatzen duen neurriren bat ezarri behar dutenean edo zerbitzu-emateari hesiak ezartzen dizkiotenean, neurririk apalena edo mugarik txikiena ezartzen duena hautatu behar baitute, interes publikoa babesteko beharrezana arrazoitu behar dute eta, gainera, lortu nahi diren helburuak lortzeko egokia dela bidezkotu behar dute, betiere bereizkeriazko traturik gertatzen ez dela bermaturik.

6. Beste alde batetik, Ekonomia Iraunkorraren Legeak herri-administrazioei eskatzen die, besteak beste, lehia hobetzeko abiaburua errespetatzea. Hori horrela, herri-administrazioek enpresen lehiakortasuna bultzatu behar dute, araudi-esparruak ezarriz, lehia hobetu eta ondasun nahiz zerbitzuetako merkatuen eraginkortasuna sustatzeko eta, era berean, ekoizpen-baliabideen esleipena erraztu eta ekoizkortasuna hobetzeko helburuz⁹. Manu horri jarraiki, herri-administrazioek bideratutako araubidezko ekimenak beharizan, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, irisgarritasun, erraztasun eta eraginkortasunaren abiaburuetara doitu behar dira ezinbestean.

7. Azkenik, Merkatuaren Batasunaren Bermeari buruzko Legearen funtsak ditugu operadore ekonomikoen zirkulazio eta ezarpen askeak; hala, ondasunak eta zerbitzuak era askean ibil daitezke, eta inongo agintaritzak ezin galaraz diezaieke zirkulazioa zuzenean edo zeharka, jarduera ekonomikoa gauzatu ahal izateko oinarritzko baldintzen berdintasunari eutsita¹⁰.

Lege hori aplikatzekoa da lege ezarritako merkatu-baldintzetan garatzen diren jarduera ekonomikoei heltzeko eta, legearen artikuluek xedatzen dutenarekin bat, operadore ekonomiko guztiek eskubide berdinak izango dituzte, inolako bereizkeriarik gabe egoitza edo establezimendua kokatzen deneko lekua direla eta.

Horren ildotik, jarduera ekonomikoei heltzeaz edo horietan jarduteaz diharduen izaera orokorreko xedapen batek, administrazio-egintza batek edo kalitate-arau batek ezin izango du baldintzarik edo eskakizunik ekarri, baldin eta horren ondorioz, zuzenean edo zeharka,

⁷ Abenduaren 22ko 25/2009 Legea, beste hainbat lege aldaratzen dituena, zerbitzu-jarduerari era askean heltzeko eta horietan jarduteko legearen arabera egokitzeko, EAO, 308 zk., 2009ko abenduaren 23koa.

⁸ Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, EAO, 285 zk., 1992ko azaroaren 27koa.

⁹ Martxoaren 4ko 2/2011 Legea, Ekonomia Iraunkorrarena, EAO, 55 zk., 2011ko martxoaren 5koa.

¹⁰ Abenduaren 9ko 20/2013 Legea, Merkatuaren Batasunaren Bermearena. EAO, 296 zk.; 2013ko abenduaren 10ekoa.



bereizkeria ezartzen bada operadore ekonomikoaren establezimendua edo egoitza direla eta.

Europar Batasunaren esparruari gagozkiola, araudiak gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten edo zerbitzuak bertan ematen dituzten subjektuei –nazionalei edo EBko estatu kideetako subjektuei– eragiten baitie, langileen zirkulazio askeari edo zerbitzuak emate askeari buruzko araudiak ere berebiziko garrantzia dauka¹¹.

III. Proposatutako araudiaren azterketa lehiaren ikuspegitik.

1. Araudi-paradigmaren aldaketa.

8. Gaur egun, Euskadiko Kirolaren Legeak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoan kirolari atxikitako zerbitzu profesionalen esparrua¹². Araudi horren xedea kirola arautzea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, baina ez du lanbide zehatzik aipatzen. Dena dela, kirolari atxikitako jarduerekin lotzen diren ikasketak artezten dituzten arau ugari daude; horietako batzuk kirol-motaren arabera bereizten dira eta beste batzuk izaera orokorrekoak dira¹³. Gainera, kirol federazioek ikastaro espezifikoak eskaintzen dituzte profesionalen gaikuntza bideratzeko kirol-mota guztietan. Gauraino, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago lotura zehatzik kirol-titulazioen eta zerbitzu profesionalen artean. Nolanahi ere, Euskadiko Kirolaren Legeak honakoa ezartzen du: “Kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak, hots, irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamenduak, sustapena eta bestelakoak, eskaini ahal izateko, aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, dagokion titulu ofiziala eskatuko dute”. Hala, araudiak agintzen duena oraindik ere garatu ez denez, operadore ekonomikoek, gaur egun, zerbitzuak eskaintzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan merkatuari heltzeko eta horretan jarduteko inolako

¹¹ Ikusi Europar Batasunaren Jardunbide Itunaren (EBJI) 26. artikulua (barruko merkatua), 49tik 55.enera (ezarpena) eta 56tik 62.enera (zerbitzuak), eta 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentaraua, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoa, DOUE, L 376, 2006ko abenduaren 27koa, 36/68 or. Aipatzekoa da Europako Parlamentuaren 2013ko otsailaren 7ko Ebazpena; ebazpen horretan, hainbat gomendio ageri dira Batzordearentzat, merkatu bakarraren gobernantzaren ingurukoak (2012/2260(INI)), eta bereziki azpimarratzen da zerbitzuen sektorearen garrantzia, hazkundera ahalbidetzeko esparru giltzarria delako, zerbitzuak emateko askatasuna funtsezkoa izanik eta Zerbitzuei buruzko Zuzentaruaren aplikazio osoak onura ugari ekarriko dituelarik.

¹² Ekainaren 11ko Legea, Euskadiko Kirolarena. EHAA, 118 zk.; 1998ko ekainaren 25ekoa.

¹³ Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak ezartzen du araubide bereziko kirol-ikasketen araudi orokorra. EAO, 268 zk., 2007ko azaroaren 8koa. 22.2 artikulua dioenari jarraiki, araudiak ez dakar lanbide-jardueraren arauketarik. Beraz, ez du zuzeneko loturarik ezartzen araututako titulazioen eta lanbide-jardueren artean.



mugapenik gabe. Salbuespen bakarria dugu gorputz hezkuntzako irakaslearen lanbidea. Izan ere, lanbide tituluduna da eta elkargo profesionalean batzen da, Hezkuntza arloko araudiak ezartzen duen lege¹⁴.

9. Aurreproiektuak “*ex novo*” ezarri zituen “begiralea”, “hezitzailea” eta “zuzendaria” izeneko lanbideak, eta horietan jarduteko erreserba egiten ahalegindu zen, bai eta lanbide horietako bakoitzak gauza ditzakeen jardueren “partzelazioa” ere.

Paradigma-aldaketa horri jarraiki, kirol-zerbitzuak eskaini nahi dituen orok, besteren kontura edo norberaren kontura, titulazio jakin batzuen jabe izan beharko du edo, bestela, egiaztapen ofizial zehatza lortu beharko du. Horrez gain, izena eman beharko du erregistro publiko egokian eta, horretarako, dokumentazio zehatza aurkeztea eta eskakizun jakin batzuk betetzea eskatuko diote.

10. Aurreko guztiagatik, interes orokorreko arrazoiak eman ezean edo herri-administrazioek erantzun beharreko merkatu-akatsak gertatu ezean, lanbide jakinetan jarduteko erreserbak ondorio kaltegarriak sorrarazten ditu, lehenengoz eta bat, zerbitzu-emaileentzat, dagokion merkatura sartzeko baldintzak zailtzen zaizkielako (hau da, sartzeko hesiak sortzen dira). Era berean, erabiltzaileentzat ere kaltegarriak dira ondorioak, aukera murrizten zaielako eta, oro har, hartutako zerbitzuen prezioa igotzen delako. Horrek guztiak badakar enpleguaren sorrera apaltzea eta berrikuntzarako nahiz zerbitzuak emateko hobekuntzarako pizgarriak ahultzea.

11. Proposamenak dioenez, “Lege mailako arau bat tresna egokia da jarduera profesional libre jakin batzuk jarduera arautu bihurtzeko”.

Horren haritik, argitu behar da lege-mailako arau bat hautatze hutsak ez duela funtsatzen lehia mugatzeko inolako neurririk. Nolanahi ere den, mugapenak interes publikoan oinarritu behar dira eta interes publikoa behar bezala bidezkotu behar da, beharrezana, proportzionaltasuna eta bereizkeriarik eza aztertzeko helburuz.

Ezin da ahaztu testu artikulatuak berak agerian uzten duela muga eta asaldura gutxien sorrarazten dituzten neurrien alde egin behar dela.

2. Proposatutako arauak sorrarazten dituen hesien azterketa.

12. Lege Aurreproiektuari eta Zioen Azalpenari erantsitako Memoriak modu orokorrean oinarritzen du arautu egin behar dela kirolari lotutako lanbide batzuek osasunean eta

¹⁴ Ikusi Gorputz Hezkuntzako Irakasleen Elkargo Ofizialei buruzko azaroaren 3ko 2957/1978 Errege Dekretuaren 15. artikulua, EAO, 1978ko abenduaren 18koa.



kirolarien segurtasunean daukaten eragin “ukaezina”. Era berean, aipatutako agirietan adierazten da “prestakuntza egokirik gabeko” pertsonak aritu direla halako jardueretan, gizatalde bereziki kalteberen kasuan (eskolako garaian dauden haurrak eta gazteak). Modu berean, arauan ezartzen da bere helburua dela kirola sustatzea gizartean.

Ez Aurreproiektuaren Memoriak, ez Zioen Azalpenak ez dute zehazten esparru horretan orain arte garatu diren jarduerak zer-nolako eragin kaltegarriak sorrarazi dioten kirolarien osasunari nahiz segurtasunari; beste alde batetik, ez dute daturik ematen “Konstituzioaren ikuspegitik esanguratsuak diren xede publikoak” babesteko beharraz jabetzeko eta, hartara, zerbitzuak era askean eman ahal izateko mugarik ezartzeko¹⁵.

Kirolariei eragindako kalte zehatzak edo haien osasunak pairatutako benetako arriskua egiaztatzen ez badira arautu nahi diren jarduera guztien jardunari dagokionez, ezin da mugapena justifikatu.

A. Titulazioak eskatzea eta jardueraren erreserba egitea.

13. Kirolari lotutako zerbitzu jakin batzuk ematea “begirale”, “entrenatzaile” eta “zuzendari” gisa kalifikatutako pertsonentzat gordetzen da, betiere arauak jasotzen dituen gaitasunen jabe baldin badira.

a. “Begirale” edo “entrenatzailearen” jarduerak.

14. Arauak zehatz-mehatz bereizten ditu izendapen horien itzalean gauzatu daitezkeen jarduerak eta titulazio akademiko bereziak ezartzen ditu horietako bakoitzarentzat.

15. Arloan dauden titulazioak jarduerari heltzeko eskakizun gisa identifikatzeak, zalantzarik gabe, zerbitzuen partzelazioa sorrarazten du, baina ez da nahikotasunez arrazoitzen **konpartimentazio** horrek ahalbidetzen duela hartzaileen osasuna babesten.

Egoera horren adibide garbia dugu proposamenaren 4. artikuluan. Manuak ezartzen duenez, gorputz hezkuntzako irakasleek “begirale” deritzon jarduerari lotutako zereginetan jardun dezakete ikastetxeetan eskola-ordutegitik kanpo. Hala ere, profesional horiek ezin dira aipatutako begirale-zereginetan aritu ikastetxetik kanpo.

Adibide horrek argi eta garbi erakusten du proposatutako arauak sortzen duen “habilitazio” berriak merkatua ixten diela jarduera batzuei, baina baldintza horiek ez dizkiete onurak ekartzen erabiltzaileei, ezta horien segurtasuna eta osasuna babesteko estandarrak areagotzen ere.

Bada, beraz, merkatura sartzeko hesi garbia, arrazoirik gabekoa.

¹⁵ Konstituzio Auzitegiaren 194/1998 Epaia, urriaren 1ekoa, EAO, 260 zk., eranskina, 1998ko urriaren 30ekoa. Epaia horrek, gainera, gorputz hezkuntzako irakaslearen lanbidearen aipurik baino ez du egiten.



Aurreko paragrafoan esandako baieztapenak balio berdina dauka “boluntariotzan” gauzatzen diren jarduerak arauaren aplikazio-eremutik kanpo uzten direnean (xedapen osagarri eta iragankorretan jasotzen diren babes-klausula konplexu guztiak aintzat hartuta).

Ildo beretik interpreta dezakegu 5.9 artikulua. Artikulu horrek dioenez, “kualifikazioa ez zaie eskatuko beste herrialde batzuetan edo beste erkidego batzuetan egoitza duten kirol-elkarteen entrenatzaileei edo kirolariei, Euskal Autonomia Erkidegoan noizbehinka entrenatzen edo lehiatzen direnean, estatuko edo nazioarteko kirol-lehiaketak prestatu edo parte hartzeari dagokionez.

Arauan jasotzen den titulaziorik ez edukitzeak zalantza jarriko balu kirolarien segurtasuna edo osasuna, titulazioa zerbitzuak eskaintzen dituen zeinahi profesionali eskatu beharko litzaioke, zerbitzu-ematea aldizkakoa izan arren.

Antzeko ondorioak atera ditzakegu 7. artikuluan; horren arabera, egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten profesionalek edo erkidegotik kanpo jarduten dutenek ere ez dituzte aipatutako eskakizunak bete behar.

16. Arauak lotura garbia ezartzen du titulazio jakinen eta jarduera zehatzen artean.

“Begirale” deiturikoek “egokitzapen fisikoa bideratu, sasoia berreskuratu edo hobetu, banakako entrenamenduan edo prestakuntzan jardun” edo antzeko jardueretan aritu daitezke. Horretarako, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunak edo Jarduera Fisiko eta Kirol Jardueren Animazioko goi-mailako teknikariak izan behar dira.

Irakaskuntza, ikaskuntza edo izaera orokorreko, kirol anitzeko edo diziplina anitzeko antzeko jardueretan aritzeko, berriz, kirol-mota bakarra ez denean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunak edo Jarduera Fisiko eta Kirol Jardueren Animazioko goi-mailako teknikariak izan behar dira.

Alabaina, irakaskuntza, ikaskuntza edo antzeko jarduerak kirol-mota bakarraren ingurukoak direnean eta kirol-hastapenen esparruan edo oinarrizko mailan egiten direnean, kualifikazio egiaztagarria beharko da, mota horretako kirol-teknikariaren erdi-mailako graduaren hasierako zikloa eskuratuta edo, bestela, dena delako kirol-motako kirol-teknikariaren goi-mailako gradua eskuratuta.

Egoera horri erreparaturik, oinarrizko mailetan eta kirol-mota bakarrean begirale aritu nahi duenak unibertsitatez kanpoko titulazioetako bat izan beharko du, baina ezin izango du horretan jardun, esate baterako, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua badauka edo profesionaltasunaren ziurtagiriaren jabe bada, guztiz ulertezina dena.

Antzeko ondorioak atera daitezke (profesionaltasunaren ziurtagiria onartzen dela kenduta) 5. artikulua aztertzen badugu. Bertan, “entrenatzaileez” ari denean, arestian mahairatzen genituen arazo berdinak proposatzen dira modu berean.



Gainera, lanbideei heltzeko eta horietan jarduteko modua ematen duten titulazioak zehatz-mehatz bereizten ditu proposamenak kirol-esparruko titulazioetatik. Hala, ez da aurreikusten titulazio desberdinak dituzten pertsonak –edo batzuetan, zerbitzu-emate egokia bermatzen duen eskarmentu egiaztatua– merkatura sartzea izan dezaten une honetan egiten duten eran. (Kirol-mediku, ospe handiko profesional, titulazio horiek sortu aurretiko eskarmentu zabaleko pertsona, gorputz hezkuntzako aipua duten lehen hezkuntzako gradudun eta abarrez ari gara).

17. Horregatik guztiagatik, pentsatzen dugu zurruntasun hertsiegia dagoela gauzatu daitezkeen jarduerak bereizterakoan, bereizketa hori ez baitago behar bezala arrazoiturik.

Era berean, ezin dugu argitzat jo arauak eskatzen duen loturaren justifikazioa titulazioaren eta titulazioak gaitzen duen jardueraren artean.

Gainera, ez da inola ere ziurtatzen sistema berriak kirol-jardueren inguruko osasuna eta segurtasuna hobetzen lagunduko duenik; bai, ordea, eskaini ahal diren zerbitzuen partzelazioa eragiten du.

Arauketak sistema ulertzen zailtzen du eta bideak ixten dizkio zerbitzu-eskaintzaile berrien sarrerari. Beraz, jarduerari heltzeko hesiak sorrarazten dira, inolako justifikaziorik gabe.

b. “Zuzendariaren” jarduerak

18. Beren-beregi jorratu behar dugu arauak jasotzen duen "zuzendaria" izeneko kategoria. “Kirol-zuzendaria deritzon lanbideak ondoko jarduera profesional hauetan guztietan aritzeko **aukera** ematen du: zuzendaritza, programazioa, plangintza, koordinazioa, kontrola, gainbegiraketa eta antzeko eginkizunak, ikastetxeetan, zerbitzuetan, jardueretan eta kirol-erakundeetan, titulartasun publiko nahiz pribatuetakoetan, kirol-zientziei datxezkion ezaupideak eta teknikak baliatuz”. Horretarako, arestian azaldutako kasuetan bezala, titulazio zehatzak eskatzen dira.

19. Dena dela, aurreko kasuetan esan moduan, ez da ziurtatzen arauan eskatzen diren titulazio jakinen bidez kirolarien osasuna edo segurtasuna babesten lagunduko denik, eta beraz, jardueraren erreserba egiten da berriro ere.

20. Gainera, ez da arrazoirik ematen merkatuaren itxieraren beharrezko justifikatzeko kirolari lotutako titulazioak dituzten pertsonen; izan ere, ez baita antzeko loturarik eskatzen beste sektore ekonomiko bateko gerentzietan, enpresa-zuzendaritzetan eta abarretan.

21. Kasu honetan, beraz, lanbide honen identifikazioak hesiak sorrarazten ditu, antza denez, aurreko kasuetan baino bidegabeagoak.



c. Gorputz hezkuntzako irakaslea.

22. Lanbide horri dagokionez, arauak berak ezartzen duenez, “Hezkuntza kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren Laugarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoari jarraiki, gorputz hezkuntzako lanbidean aritzeko Euskal Eskola Publikoari atxikitako ikastetxeetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ikastetxe pribatuetan, hezkuntza-arloko legerian ezarritako kualifikazioak eskatuko dira, eta Lehen Hezkuntzan lehentasunez balioetsiko da Lehen Hezkuntzako Gradua, Gorputz Hezkuntzako aipua duena edo baliokidea”.

Hala eta guztiz ere, honakoa dio jarraian manuak: “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, lehentasunez balioetsiko da Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzietako Gradua edo horren baliokidea daukan profesionala. Aipatutako lehentasunak bakar-bakarrik ezarriko dira titulazioak derrigorrezko izaeraz eskatzen ez diren kasuetan.”

23. Testuak berak dioen legez, Gorputz Hezkuntzako lanbidea araubidez erregulatzen da eta, bertan, titulazioa derrigorrezkoa deneko inguruabarrak ezartzen dira. Ez dago aukerarik, beraz, beste arau batek “lehentasunez” balioetsiko diren tituluak ezartzeko.

Arauaren idazkerak berak ezartzen du “lehentasun” deituriko horiek “bakar-bakarrik ezar daitezkeela titulazioak derrigorrezko izaeraz eskatzen ez diren inguruabarretan”.

Ageri denez, idazkerak adierazten dituen “lehentasunak” “eskakizun” bilakatzen dira titulazioetan, Gorputz Hezkuntzako irakaslearen lanbide arautuari dagokionez.

Eskakizun hori lanbideari heltzeko askatasunaren aurkakoa da eta, era berean, ikastetxeetako profesionalen hautaketa askearen aurkakoa da.

Beraz, lehia mugatzen du inolako justifikaziorik gabe.

d. Proposamenak sortzen dituen lanbideen gaineko alderdi erkideak.

24. Izaera orokorrez, arauketan jasotzen diren alderdi batzuek **segurtasun juridikoaren gabezia** sor lezakete zerbitzuak merkatu horretan eskaini nahi dituzten balizko operadoreentzat.

Esate baterako, arauak ezartzen duenez (2. artikulua), “honako lege honetan jasotzen diren lanbideen eginkizunen zerrenden xede nagusia lanbide bakoitzaren esparru funtzional orokorra ezartzea da eta, horren ondorioz, adierazpenenezkoak dira, ez mugatzaileak”. Horrela, beraz, jardueren erreserba sortuko litzateke “adierazpenezko eran, ez era mugatzailean”, baina hori ez dator bat arauak ezarri behar duenarekin; izan ere, arau batean jasotako zeinahi salbuespen zentzu hertsian interpretatu behar da, ez zentzu zabalean (*odiosa sunt restringenda*).



Beste alde batetik, hainbat artikuluk titulazio zehatzak “edo baliokideak” aipatzen dituzte, baina ez da azaltzen zein prozedura erabiliko den baliokidetasuna egiteko. Aurrekoak esan nahi du administrazioaren esku geratzen dela merkatura sartzeko baldintza zehatzak ezartzea, eta egoera horrek sorrarazten duen ziurgabetasunak, berez, eragotzi ahal du zerbitzuen eskaintzaileen jarduna.

Beste adibide bat aurki dezakegu hirugarren xedapen gehigarrian. Xedapen horrek boluntariotza-jarduerak “edo antzekoak” aipatzen ditu, eta bertan xedatzen du “salbuesenez eta behin-behinekotasunez”, boluntarioen “talde espezifikoei” ez zaiela eskatuko legean ezartzen den kualifikazioa eta “beste kualifikazio bat” eskatu ahal izango zaiela.

Gauza bera esan genezake “jarduerari atxikitako prestakuntza espezifikoa” eskatzen den kasuetan (prestakuntza nahikoa zein den argitzen ez dela) edo jarduerak bereizten direnean, “lehiaketak prestatzeko” gauzatzen bide direlako.

e. Balorazioa.

25. Aurreproiektuak ez du argiro adierazten zer-nolako onurak ekarriko lituzkeen zerbitzuak era askean emateari jarritako mugak, titulazio jakinak eskatzearen ondorioz, ezta jardueren konpartimentazioak (“begiralea”, “entrenatzailea” edo “kirol-zuzendaria”) ekarriko lituzkeena ere.

Beraz, ezin da arauaren beharrezko egiaztatutzat eman kirolarien osasuna eta segurtasuna bermatze aldera.

Horren ondorioz, proposatutako araua merkatuaren batasunarekin eta Europar Batasunean zerbitzuak era askean emateko arauketarekin bateragarria ote den eztabaida alde batera utzita, ondorioztatu behar dugu honako arau hau oztopoa dela lehia eraginkorrari eusteko aipatutako merkatuan.

B. Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol-Profesionalen Erregistroa eta elkargoan derrigorrez kide izateko aipamena.

26. Aurreproiektuaren 10. artikulua ezarrita dauka, araututako jardueren gaineko zerbitzuak eman ahal izateko, derrigorrezkoa izango dela elkargo profesional egokian izena ematea, estatuko legeak hala xedatzen badu, edo bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol-Profesionalen Erregistroan.

27. Elkargo bateko kide izateko derrigortasuna jardueri heltzeko hesizat jotzen da eta bakarrik bidezkotu daiteke lege batek hala ezartzen duenean¹⁶. Proposamen honen

¹⁶ Ikusi Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 10eko 42/1986 Epaia, EAO, 102 zk., eranskina, 1986ko apirilaren 29koa. Epai horrek ahalbidetu du lanbide jakin batzuei heltzeko sarrera eta horietan aritzeko modua



xedapen batzuetan, esparru honetako elkargo profesionalei buruzko aipamen generikoa edo hipotetikoa egiten da. Auzi honetan, Gorputz Hezkuntzako irakasleen elkargoa besterik ez dagoenez gero, nabarmendu behar dugu aipamen horiek baztertu beharko lirakeela, pentsaraz dezaketelako hainbat elkargo egon badaudela, edo bestela, elkargo horiek egotea komeniko litzatekeela, baina egoera hori lehiaren aurkakoa da eta, batez ere, interes orokorraren aurkakoa.

28. Beste alde batetik, aztertu behar da zerbitzuak emateari eragozten dion erregistroa eratzea justifikagarria den interes orokorreko arrazoien zioz.

Lege Aurreproiektuarekin batera datozen Memoriak eta Zioen Azalpenak ez dute aipatzen operadore ekonomikoek derrigorrez izena eman behar dutela administrazio-erregistro batean. Proposamenaren 10. artikulua orokorrean aipatzen du "kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen defentsa onena".

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa sektore honetan aplikagarriak diren arau ugaritan oinarritzen da¹⁷. Arau horiek erabiltzaileen babesa bermatzen dute eta zerbitzu-emaileak behartzen dituzte zerbitzua era egokian emateko Legeak nahitaezkoztat jotzen dituen elementu guztiei buruzko informazioa ematera¹⁸.

29. Horregatik, dena delako erregistroan derrigorrez izena eman behar izateak muga dakarkio zerbitzuak aske emateari, baina ez da egiaztatu neurriak erabiltzaileak hobeto babesten dituenik. Esandako guztiagatik, ondorioztatu behar dugu erregistroa ez dela beharrezkoa, ez proportzionala, aintzat hartzen badugu lehendik badirela lehia horrenbeste mugatzen ez duten aukerak, esate baterako, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko neurrietan eta zerbitzuei heltzeko neurrietan ezarritakoak.

mugatzea; horretarako, titulazio jakinak edo elkargoko kide izateko derrigortasuna ezarri du. Hala eta guztiz ere, erakunde gorenak baieztatu du "legegilearen eskumena dela (...), interes publikoaren eskakizunak eta gizarte-bizitzak emandako datuak aintzat hartuta, lehendik dagoen lanbide jakin bati dagokionez, era askean gauzatzeari noiz utzi behar zaion, eta titulaziopeko lanbidetzat noiztik aurrera jo behar den erabakitzea, hau da, lanbide horretan aritzeko tituluak beharrezkoak direla ebaztea. Ildo horretan, titulutzat ulertu behar da goi-mailako ikasketen jabe izatea, egiaztagiri edo lizentzia eskuratuta" (FJ 1).

¹⁷ Ikusi Kontsumobide erakundearen webgunea. Bertan, kontsumitzaileen interesak babesten dituen erkidegoko eta estatuko legeriaren gaineko lotura eguneratuak agertzen dira: http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs05/es/contenidos/informacion/kb_normativa/es_sll/normativa.html

¹⁸ Ikusi, adibide gisa, arestian aipatutako zerbitzu-jarduerari era askean heltzeko eta horietan jarduteko Legearen 22 eta 23. artikulua eta azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, **Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako** Lege Orokorraren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onartzen dituen, EAO, 287 zk., 2007ko azaroaren 30ekoa, (besteak beste, martxoaren 27ko 3/2014 Legeak aldarazita), eta Euskal Autonomia Erkidegoko 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuarena (arestian aipatuta).



C. Izendapenen erreserba.

30. Proposatutako arauaren 9. artikulua ezartzen du “Lege honetan aipatutako lanbideen izendapena bakar-bakarrik erabili ahal izango dela lanbide-jarduna honako lege honetan ezarritakoarekin eta aplikagarriak diren gainerako arauekin bat datorrenean”. Aurrerago, arauak dio “beste profesional batzuek ezin izango dituztela erabili antzeko esangura edo antzeko idazkera duten izendapenak, baldin eta honako lege honetan arautzen direnekin nahas badaitezke”. Hala, arauari jarraiki, izen horiek bakarrik erabili daitezke boluntariotza-ekintzetan edo “kirol-elkarteen baitan, kualifikazio-mailak elkartearen barruko jardunbidean sailkatzeko asmoz.

31. Ildo horretan, gogora ekarri behar dugu gai horri dagokionez Lehiaren Batzorde Nazionalak ezarri duena¹⁹.

“Kidetzea derrigorrezkoa ez den elkargo profesional jakin batzuetako elkargokideek izendapen profesional baten pribilegioa gozaten dute era eskusiboan, eta izendapen hori zuzenean lotzen da elkargokideek garatzen duten lanbide-jarduerarekin. **Izendapen-erreserba** horrek elkargoko kide ez direnen jarduera profesionala galaraz dezakete eta, beraz, dena delako merkatu profesionalerako sarrera mugatzen die azkenei. Hori dela eta, murriztapen horiek eta derrigorrezko kidetzeak antzeko ondorioak izan ditzakete; izan ere, lehiaren ikuspegitik, profesionalak elkargoko kide egin behar desabantaila esanguratsurik ez edukitzeko izendapen profesional egokia balia dezaketen profesionalen aldean.(...)

Elkargokidetzea derrigorrezkoa ez den lanbideei gagozkiela, murriztapen horiek ez dute inolako justifikaziorik.”

Hori dela eta, argiro esan behar dugu elkargoko kide egitea beharrezkoa ez den lanbide-jardueretan, izendapenaren erreserbak jardueraren erreserba ere badakarrela, eta azkenak galarazten diela eskakizun akademikoak betetzen dituzten profesionaleri (eta, ondorioz, zerbitzu-emate egokia bermatzen duten gaitasunak eskuratu dituzten profesionaleri, nahiz eta lanbide-kualifikazioa berdin-berdina izan) lanbidearen izendapena erabiltzea²⁰.

Gainera, hizpide darabilgun auzian, sortu berriko lanbideetan arauak erabiltzen dituen izendapenak (begiralea, entrenatzailea, kirol-zuzendaria) arruntegiak dira eguneroko erabileran eta orain arte ez da inolako murriztapenik izan (ezta inguruko arauketetan ere).

¹⁹ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Elkargo profesionaleri buruzko txostena, Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondotik*. Madril, 2012ko apirilaren 26an, Lehiaren Batzorde Nazionalan, <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Noticias/tabid/105/Default.aspx?Contentid=475051>.

²⁰ Ikusi Lehiaren Kataluniako Agintaritzaren Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiaren Ebazpena 12/2009 espedientean - *Kataluniako Ekonomialarien Elkargoa*, 2011ko uztailaren 26koa.



Horregatik, argi eta garbi esan behar da izendapenaren erreserba hori lehia askearen aurkakoa dela.

D. Arau-haustek eta zehapenak sortzea.

a. Zehapenak sortzea arau-hauste formalen zioz.

32. Aurreproiektuaren 15. artikulua jorratzen ditu lege honetan ezarritakoa betetzen ez duten jardura arauak.

Manu horretan ezartzen da jardueran arituz gero lanbide-kualifikazio egokia eduki gabe, administrazio-, diziplina- eta zigor-erantzukizunak sortuko direla, aplikagarria den ordenamendu juridikoari jarraiki.

Beste alde batetik, Azken Xedapenetan lehenengoak eta bigarrenak Euskadiko Kirolaren Legearen 127 eta 128. artikulua aldaratzen dituzte, larritzat eta oso larritzat jotako urratzeak gehitzeko helburuz. Larritzat jotako jokamoldeak zerbitzu profesionalak ematean dautza kirolari atxikitako lanbideak arautzen dituen legeriak eskatzen duen lanbide-kualifikazioaren jabe izan gabe (oso larria), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol-profesionalen Erregistroan izena emateko betebeharra ez betetzea (larria).

33. Arau horiek urratzeak jasotzen dituzte eta urratzei ondorio larriak ezar dakizkieke, bai eta zigor-arloko zehapenak ezarri ere.

Nolanahi ere, inongo arau-haustetan ez da aipatzen zerbitzugintza gauzatu dela erabiltzaileen segurtasuna edo osasuna bermatu barik; ildo beretik, ez da esaten osasun-edo segurtasun-arriskurik gertatu denik.

Beste gogoeta juridiko batzuk gorabehera, eskakizun formalak urratzen direlako arau-haustek sortzeko (hala nola, legeak eskatzen ez dituzten titulazioak ez edukitzea edo, larriagoa dena, izena ez ematea administrazio-erregistro huts batean), sartzeko hesia sorrarazten du inolako justifikaziorik gabe, zerbitzuak emanaz gero, erabiltzaileen segurtasunari eta osasunari inongo kalterik eragingo ez lieketen profesionalak bazter utz ditzakeelako.

Ordenamendu juridikoak egoki arautzen ditu kontratuko erantzukizunak erantzukizun zibilak sektore horietan kalteak gertatzen direnean eta, beraz, esan dezakegu arau-haustek sortzeko ez diola ezertan laguntzen erabiltzaileen babesa hobetzeari.

Alabaina, arau-haustek merkatuaren itxiera artifiziala ahalbidetzen dute, eta horrek dakartzan ondorio kaltegarri guztiei bide ematen die (prezioa, berrikuntza, lanpostuak...). Gainera, ez da arau honetan adierazitako helburuekin bat datorren abantailarik egiaztatzen.



b. Jardueretan aritzea justifikaziorik gabe mugatzen duten administrazio- eta diziiplina-urratzeak sortzea.

34. Proposatutako arauaren 11. artikulua lehenengo paragrafoak betebeharren zerrenda luze eta mardula jasotzen du. Zerbitzuak aipatutako jardueri loturik ematen dituzten pertsonak bete behar dituzte betebeharrak horiek guztiak.

Lehen paragrafo horretan jasotzen diren betebeharrak guztietatik, oso gutxi lotzen zaizkio zuzen-zuzenean arauan adierazitako helburuak betetzeari (indarrean dauden beste arau askotan dagoeneko ezarrita dauden betebeharrak aintzat hartuta); horietako batzuk nekez jar daitezke administrazioaren kontrol eraginkorraren eraginpean eta, beraz, arau-haustetat jotzea administrazio-zuzenbide zehatzailearen oinarrizko abiaburuen kontrakoa izango litzateke. Arauak “kasuan-kasuan izena eman beharreko elkargo profesional egokiak erabakitzen duen beste edozein betebeharrak” aipatzen du, baina ez dago elkargo profesionalik, arauak azaltzen duen balizkoan izan ezean.

Bigarren paragrafoak zehatz-mehatz ezartzen du “aipatutako abiaburuak eta betebeharrak urratzeak administrazio- eta diziiplina-erantzukizun egokiak eskatzea sorraraziko duela”.

Betebeharren zerrenda luze eta lauso horretan oinarrituta, arau-haustek tipifikatzeak zaildu dezake merkaturako sarrera.

E. Murrizketak zerbitzuen publizitateari.

35. Proposatutako arauaren 18.3 artikulua ezartzen du “lege honek arautzen dituen profesionalek ezin izango dutela publizitateari egin osasunarentzat ondorio onuragarri garbiak ez dituzten zerbitzuen inguruan, eta guztiz debekatuta dagoela mirari-zerbitzu edo mirari-produktuen gaineko publizitatea”.

Lehiaren gaineko araudiak hertsiki mugatzen ditu zerbitzuen publizitateari jarritako debekuak, hain zuzen ere, publizitatea tresnarik eraginkorrenetakoa delako merkaturan lehiatzeko.

Osasunaren babesak bidezko egiten ditu hainbat jardueraren publizitateari jarritako mugak. Muga horiek guztiak behar bezala araututa daude osasun arloko publizitatearen araudian eta lehia desleialaren araudian (iruzurrezko publizitateari dagokionez); araudi horien helburu nagusia da erabiltzaileen interesak babestea interes komertzialen gaintik²¹.

Esandako guztiagatik, ez da egiaztatzen publizitateari jarritako muga beharrezkoa denik, interes orokorra babeste aldera lehendik dauden bideak aintzat hartuta.

²¹ Ikusi abuztuaren 2ko 1907/1996 Errege Dekretua, ustezko osasun-helburua duten produktu, jarduera edo zerbitzuei buruzko publizitate eta merkataritza-sustapenari buruzkoa. EAO, 189 zk., 1996ko abuztuaren 6koa, eta urtarrilaren 10eko 3/1991 Legea, Lehia Desleialarena, EAO, 10 zk., 1991ko urtarrilaren 11koa.



F. Lehiari eragin ahal dioten beste alderdi batzuk.

36. Proposatutako arauaren 18.4 artikulua ezartzen duenez, “lege honen eragin-esparruan dauden profesionalen gutxieneko kualifikazioa betetzen dela bermatzeko helburuz, profesional horiekin egindako zerbitzugintza-kontratu guztiak idatziz egingo dira eta argiro jasoko da profesional horien kualifikazioaren egiaztatena”.

Xedapen horrek ezarri behar du arau honek jasotzen dituen jarduerak eragindako kontratuak nolakoak izan behar diren, enpresaburuen artean (norberaren konturako langileak barne) edo erabiltzaileekiko harremanen artean (halakoetan, lege ezarrita dago idatziz jaso behar direla) bereizi gabe.

Bestalde, egiaztatu beharko litzateke arauko eskakizun horiek (idatzizko kontratua eta titulazioa egiaztatu behar izatea kontratuan) zein neurritan laguntzen duten interes orokorra hobetzen.

37. Aurreproiektuaren Seigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen du aurreproiektuan araututako lanbideren batean aritzen diren pertsonak, kirol-jardueretan aurrez aurre parte hartzen dutela (Gorputz Hezkuntzako irakaslea, kirol-begiralea eta entrenatzailea) lehen sorospenetako gaikuntza egiaztatu beharko dutela arau ezarritako epearen barruan (Kualifikazio Profesionalen Katalogoaren UC0272-2 kodea).

Hezkuntza-arloko legeriak ezartzen ditu gorputz-hezkuntzako irakaslearen lanbidetara heltzeko eta horretan jarduteko legeko eskakizunak; hortaz, ez da bidezkoa eskakizun osagarriak ezartzea. Bereziki aipatzekoa da Laugarren Xedapen Iragankorra. Xedapen horrek ezarritakoari jarraiki, profesionalak kargutik mugiaraz daitezke edo “ondoren agertutako trebetasunik eza” lepora dakieke, aurreproiektuak ezarritako epean, lehen sorospenetako gaitasuna eskuratzen ez duten guztiei.



IV. ONDORIOAK.

LEHENENGOA: Aurreproiektuak jardueraren erreserba sorrarazten du kirolari atxikitako zerbitzuak ematean, titulazio edo lanbide-kualifikazio jakin batzuk eskuratu dituzten pertsoneri dagokienez, baina ez da egiaztatu inolako arrazoirik dagoenik erreserbaren beharrezana justifikatzeko.

BIGARRENA: Sistema berriak zerbitzuak ematea zailtzen, konpartimentatzen eta mugatzen du kirolaren esparruan. Gainera, aurreproiektuak dakartzan elementu batzuek merkatua ixteko joera dute (erregistroa sortzea, beste zehapen batzuk ezartzea, izendapenen erreserba egitea, kontratuak idatziz egin behar izatea, mugak jartzea publizitateari, eman beharreko jarduerak zedarritzea...). Horrek guztiak sartzeko hesiak ezartzen ditu eta zerbitzugintza galarazten du; ondorio kaltegarriak sorrarazten ditu eta, gainera, ez da egiaztatzen hesiek laguntzen diotela arau honetan adierazitako helburua hobetzeari.